



## ZURE BESOETAN NAGOENEAN

Malen Etxebeste Lekuona

*Oiartzun*

Oroitzapen guztiak  
bihotzean gordeak.  
Zu zara haiek guztien giltza ordea.  
Zure besoetan nagoenean,  
dena da hobe.  
Barruan entzuten dut  
pozezko barrea.

Luma bat airean hegan bezala,  
edo izpi batek  
ilun guztiak argitzean bezala  
sentitzen naiz ni,  
zure besoetan nagoenean.  
Irribarre bat marrazten didazu ahoan  
eta nire alboan zaudela  
sentitzen dut orduan.

Zenbat gauza egin dituzun niregatik;  
zenbat ilun argitu dizkidazun  
zure argi izpiekin...  
Nire eguzkia zara,  
berotasun goxo batekin.





Oroitzapen guztiak  
bihotzean gordeak.  
Zu zara,  
haiek guztien giltza ordea.  
Zure besoetan nagoenean,  
dena da hobia,  
Barruan entzuten dut  
pozezko barrea.

